


ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

206n. zenbakia
jorrailla/aprilla 1996




BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



AITA SANTI ONAINDIA BASETA
(† 1996-2-11)

AITA SANTI ETA ABADE EUSKALDUNAK (Gudaldiko giroa)



- | | | | | |
|------------------------|---------------------|-------------------------|-------------------------|----------------------------|
| 1. José Sánchez | 15. Vicente Sáinz | 29. Mariano Ereño | 43. I. Arechabaleta | 57. F Sagarraga |
| 2. Antonio Partida | 16. Emilio Pardo | 30. Bernabé Acha | 44. Eugenio Larrañaga | 58. J. Antonio Loinaz |
| 3. J. José Aguirre | 17. Claudio Monreal | 31. S. Villanueva | 45. Estanislao Aguirre | 59. Santiago Onaindia |
| 4. Gregorio Fernández | 18. Germán Monreal | 32. F. Zorrozúa | 46. Victoriano Larragán | 60. Damián Celaya |
| 5. Luis Aguirre | 19. J. Pío Jáuregui | 33. Daniel Torrontegui | 47. S. Traspuesto | 61. José Domingo |
| 6. Vicente Batiz | 20. Santos Arana | 34. Rafael Urionagüena | 48. Manuel Ramos | 62. Fermín Goti |
| 7. Eugenio Legarra | 21. Carmelo Antomás | 35. Cándido Noguera | 49. E. equiel Guisaso/a | 63. Román Jáuregui |
| 8. Primitivo Urtaran | 22. Manuel Ortúzar | 36. José Sesma | 50. Nazario Saraso/a | 64. Enrique Arriaga |
| 9. Víctor Aldama | 23. Cástor Marañón | 37. F. Marcuerquiaga | 51. Juan Marquiegui | 65. Domingo Aguirre |
| 10. J. A. Dañobeitia | 24. Manuel Lladós | 38. Lino Aquesolo | 52. Luis Prieto | 66. Ugo Agetano |
| 11. Aquilino Ayerdi | 25. F. Barrenechea | 39. Gregorio Fernández | 53. Manuel Rosal | 67. Julio Ligarte |
| 12. J. Aldecoa-otalora | 26. Angel Aldama | 40. Honorio Ugoitia | 54. Angel Iturbe | 68. Ramón |
| 13. José López | 27. Angel Súnico | 41. Saturnino Ganchegui | 55. Federico Orbea | 69. Ulibeto |
| 14. Modesto Arana | 28. Julián Besteiro | 42. Juan Zabaleta | 56. J. M.ª Dañobeitia | |

Euskalerriko abadeen kondairan zer-ikusi aundia daukan argazki bat agertzen dogu orri onetan gaur.

Argazki orretan, beste abade askoren artean, aita Santi bera agertzen dalako eta zenbaki au oso-osoan berari eskintzen dautsagun ezkerro, gauza egokia da bere bizitzako aldi larri bat gogoratzen dauskun argazki au agertzea.

Neuretzat gogoangarriak diran beste izen batzuk be ikusten dodaz zerrenda orretan. Bizente Batiz, J. Aldekoa Otalora, Modesto Arana, Santos Arana, Lino Akesolo, I. Aretxabaleta, Eugenio Larrañaga, J.M.ª Dañobeitia, Fermín Goti, Roman Jauregi.

Jakiña da abade euskaldun batzuk eriotzea jasan ebela abade ta euskaldun ziralako. 16 ziran. Eta beste 500 erbesteratuak izan zira-la, eta Mateo Mujika Gotzaiñak bere "Imperativos de mi Conciencia" agirian diñoan lez, il ebezanen eta erbesteratu ebezenen artean iñor errudun izantekotan euren artean errurik aundiena izan ebanak mitiñen baten itz egitea izango eban.

Eta zergaitik orreabesteko gorrotoa? Euskaldunak ziralako, abadeak izan eta eleizako beste gotzain eta abade askon makurtu ziran lez, makurtu ez ziralako...

Gorroto ori ez zan erri-agintarien aldetik etorrrena beste barik izan. Ez Gure abadeak joaten ziran lekuetan gotzaiñak be euren aurka jarten ziran, Sevilla'ko Segura Kardinala izan ezin bestek. Mezea esateko baimena be ukatu jaken iñoz espetxean egozanai.

Eta erbesteratuta egon ziranak joan ziran tokian abade-lan ederra egin ebela entzun dogu, bai emen inguruan eta ez gitxiago Ameriketan.

Ainbseteko nekeak eta garratzasunak artu bear izan amen, batek be ez eban bere abadetzea itzi. Aspaldion, beste giro baten bizi gara baiña, ez da orrelan izan. Zio laburragoak naikoa izan dira artutako arduerea eta emondako berbea bertan bera izteko.

Sarritan esan da Eleizea ez dala izan, kondairaren joanean, Euskalerraren laguna. Eta, egia esan, gauza askotan ezin ukatu orrelan izan dala. Ori negarrez autortu bear dogun Eleizearen pekatua izan da, baiña guda-giro orretan abade asko izan daben jokabide argia ta adoretua ez ete da naikoa pekatu ori garbitzeko? Baietz uste dot.

Argazki ori izan beite lekuko bat.

AGUR BEROA

Maisu eta lagun bikaña zan Aita Santi Onaindiari.
Gizon andia benetan: Jangoikoari eta erriari emon
dautsona azken arnasarte bizitza osoa.

Jakintza arloan: Zorroak gañezka euki ebazana.
Alan erakutsi ta irakatsi eitteuen pauso bakotxean.

Izakeran ere: Setatsu ta sendotasun aundikoa. Beti
arpegi-argiagaz, ta maltzurkeri gabeko gizona izen
arren, beti arritu nintzen bere irakaspidsaz. Adarra
joaz zan beti bere adizkera, joko bat lez. Izugarrizko
antzerkia zan kanpotik begiratzea, txantxetako izke-
taldi areik.

Bion bi-elkartzea: Badirez 19 urte, talde baten, ur
eta olio-margozkiak margotzen asi giñela eta 18 urte
inguru, nire abizeneko armarria margotzeko egarrria
izan nebala. Eta enekian lez, iturrira joan-bearra. // Or
Aita Santi! // Ez zan geratu pozik armarriaren marraz-
kia erakutsiaz eta Berna-goitiko baserri batera joan
giñan, Atutxan senitarteko iker lan bat ikustera. Ber-
tako apaizak eiñekoa zan bere bizi denboran. // Ez zan
agertu nire senide artekorik eta gainera berandu egin
jakun. // Oba'ra joan giñan bazkaltzen, eta babarru-
nak, ardoa, gatz-ozpiñak, aragia, gazta barria, akeita,
txola eta txokorra, jan edan ta erretan asi orduko, bai
ostean ere, gure alkar-izketa atsegiña izan zan gai,
"EUSKADI", gure ardura nagusia izan zalako. //
Berak itandu eitteuztan (ari batetik tiraka ibili bazan
lez) eta nik erantzun. // Alan eldu giñan Larra'ra,
arratsaldeko 8'rak inguru, ta gurditik jatsi ondoren
esan eban: // —Zergaitik ez dozu idazten artikulu bat,
orri bi edo irukoa eta nik zuzenduaz Euskadi aldika-
rian argitaratu? // Baiña zeozer geiago ikasi bear dot
ez? // — Ori konponduko dogu! // Eguna eta ordua ipi-
ñi ondoren, beste itaun bat egin eban: // — Eta au noiz
arte? // — Liburuak amaituarte erantzun neutson agur-
tuaz. // Andik aurrera, ikas-lanean eta artikuloak ida-
tiaz batera, jo ta ke ibili giñan, eta iritzi desberdiñeta-
koak izan arren, sekula ez ginen asarratu, iker mintza
zalako; au da, gure indarrak ez zirelako guretzat, bai-
zik, gure elburu maitiarentzat. // Sekula ez jakun ager-
tu edo gogoratu arrokerizko motarik, ardurak, etxe
txiki eta aundiarenak zirelako. // Olan jokatu ezker-
beste doñu bat eukiko eban gure EUSKALERRIAK.

Euskadi'tik zear: Illean baten oparitxo bat artzen
gendun, eta txikia izan arren, batzutan luze eitten
jakun bere agerpena; orregatik, sarritan aurreratu gen-
duzen irteerak edozein aitzakiak. // Larunbata zan,
arratsaldeko lauretan gure elkartzeko eguna, eta opa-
rikoa izatez bazan, goizeko bederatzietan urtetan gen-
dun; ez zan gauza aundirik bear egun auetarako: gazo-
lin-ontzia beterik, ogitarteko tau, sagarrak, esnea akei-
ta apurbategaz eta denbora ona. // Bera zan antolatzaile,
eta danak ziren kulturazko osterak. // Benetan ara-
katu gendun gure EUSKALERRI maitagarri au, eta
arritzekoa zan, ainbeste, garbi eta sakon, gizon batek
jakin eta ezagutu egitea bere etxe nagusia arlo guztie-
tan, asieratik gaur arte; esango neuke ortaz, gure EUS-
KADI'K, ez dauela euki gela argi bakorik berentzat.

Zer izan dira onek amazortzi urteak guretzat? //
Niretzat, batez ere, bizi guztia aldatzea. // Ararte lan-
dubako bizia izan zalako. Andik aurrera, itandu eitten
neutsan orduan "zergaitik"? Berak liburu bat emoten
eustan. // Joko bide bat artu neban andik ona: jakiñez-
ko egi-bizitza ain zuzen, eta oso gogorra eta batzutan
latza izan arren, aurrera eroan dot bere laguntzaz. //
Ori, ez da ordaintzen edozelan, benetako bizi lagun-
tzaz baiño. // Gure alkar izketak oso atsegiñak ziran,
eta baleiteke orren erruz izatea, beti edo geienetan,
berandu eltzenginela gure arduraren aurki lekuetara. //
Sekula be ez neutson itandu nun argitaratu egiten eba-
zan nik idatzitako lanak, EUSKADI illeroko aldizka-
ria amaitu zanetik ona. // Itandu be ez neutson egin,
eta gogoratu ere ez nintzan egin sekula be. Gure lana
ortaz, izka-mizkatu artikuluaren ulermena zan, eta
andik aurrera sekula ez gendun ezer aitatu.

AGURRA

Baten baino geiagotan berak esan eustan zorione-
koa izan dala! Zer esango neuke nik...? Nor eskertu
bear...? JAUNGOIKOA zalantzarik gabe.

Agur beroa SANTI, eta betirarte biotzeko lagun
min ori.

AITA SANTI ONAINDIA

(Askoren pozerako **EUSKERAZAINTZA erri akademikoa**)

Baserri eder maitagarriak soloarte, zelai ta mendi egaletan, ondo estimaduak ziran euskaldunen artean sasoi batean. Goizean goiz, eguzki ta izadi guztia, zeruetara adi agertzen ziranean, eusko baserriak alkarri begira, adeitsu, aurkitzen ziran. // Udabarriaren edertasuna, egiz, bizigarria zan baserrietan zugatz eta landarak bizi-barritzen azten ziranean. Bizia lenengo, adarretan agertzen zan, gero lorak eta orriak etozan arnari ederren ezaugarri.

Baserri inguru guztia edermiñetan dago loraz, biziz ta itxaropenez. Udabarria da, lurak urratzen azteko sasoi. Etxeko jaunak buztartu ditu txuri giro ederretan. Aita lan atzetik lana zuzentzen, beiak erdian ta mutil koskorra makilla bategaz aurrean, beiak lorrotzean, zuzen, joan daitezzen.

Irudi ederra da baserriko lan egitea eguzkiaren dizdirapean. Baiña baserrian giro eder aretan aita semeak ta beiak, bakarrik, ez ebiltzan lanean. Biziaren Jaubea ta gizadiaren Gaizkatzaillea sinismendunen soloan ebillan goi argiz argi egiten ta mutillari beste lan aundi batera dei egiten.

Ez eutson zarataz ta gogorkeriz dei egiten. Ez eutson belarriak entzuteko era ots egiten. Deia men mena zan, gogoak eta biotzak entzun ebena norbere barneko bakardadean... Jarraitu egidazu, gauz aundiatarako auke-ratu zaitut. Mutillak benetan, gogoz ta leial erantzun eutson zerutar abotsari.

Gizatiar ikasketak eta Teoloji edo Jainkoagazko ikasketak amaitu ondoren, laster, guda sortu zan ta ara joan bear izan eban, sinismendun mutillei sinismen bidean laguntzen. Ondoren etorri jakon, ondo egiñaren ordaiña Frankotarren kartzeletan ta konbentu bakardadetan urte batzuk egitea. Baiña gauzak artzen diran moduan artzen dira ta Aita Santi, gogoz baliatu zan gerorako bere nortasuna, obeto gertatuaz. Ez dago txarrik, ondo ez datorrenik.

Ikastaro bi egin zituan. Meza esaterako eskubidea artzekoa lenengo, ta guda mingarri ta aren ondorengo bigarren. Biotan egin zituan alegin guztiak, egunen baten, sortzez artu eban erriarentzat ongarrri ta langille izatearren. Egin, ikusi eban bai, seme batek zer zor dautson bere ama lurrari... Ta ama luna ederra izan ezkerko askoz geiago.

"Egialde guztietan toki onak ba-dira, baiña biotzat dio, zoaz Euskalerrira "abestu eban Iparragirre gure abeslari urretxindorrek. Aita Santi Euskalerrriaren babesean dago Bizkaiaren erdian. // Ementxe, asmetan ditu erri euskaldun batek emon leikezan bultzadak, eusko gizadiaren alde lan egiteko. Ez dautso ezertxu be ukatuko, ez denpora, ez indar, ez nekerik, dan guztia eskeintzen dautso maite daben sorterriari, bai, Eleiz jakituriz ta bai, erri jakituriz. Euskal gizona, oso osoan, otseintzen dau.

Euskal izkuntzak izar eder argiak izan ditu euskeraren alorrean ta euren artean izar ta langille berezia izan da Aita Santi Amoroto'ko semea Izkuntzaren barrenak, ondo ezagutu ebazan ta an aurkitu zituan, izkuntza batek euki leikezan bitxirik ederranak, jakituriz beterikoak. // Ori dala-ta, erdel liburu aipatuak San Juan de Avila'ren ta Santa Teresa de Avila'ren, nai Griegotarren ta Erromatarren liburuak euskal elertian ta euskera jatorrean itzi eutsazan euskal jakituriari. Iñoz ez zan aspertu urre bitxiak batzen euskal barrutirako. Benetan maite eban kultura ta aregan alkartu eban munduko jakitunak aurkitu daben izkuntza arrigarria.

Euskalerrria, berez, da ederra. Eusko mendi ta aurreko orleia alkar besarka dagoz. Eusko itxasoa eusko semeen arima zabalaren irudi da. Eusko arkaitzak euskal semeen sendotasun ta adorea agertzen dabe. Alderdi guztietatik egia, indarra, ona, ertia, zindotasuna agiri dira mendi, zelai ta gizonen artean.

Aita Santik sorterriaren edertasun guztia ikusikeran, bertsorik samurrenak abestu eutsozan bere kabi kutunari.

"Zorionaren billa oi doakabeak

asko doaz kalera, usturik etxeak;

Maizterrak izten ditu itai ta goldeak,

oillo, baratz ta kirru etxeko andreak.

Ez ditu iñork geroztik zugatzak moztuko,

ez osto ez adar mee iñork iñausiko.

Ukulluak aremuz dirade jantziko

ta erlauntzen atakak txiñurritz josiko.

Goiz oillarrak jotsean be, antsi goxorik

ez digu axuriak egingo iratzarrik,

ez orru, ez irrintz, etxea bakarrik.

Utsik dan baserriak bai dula zori txarrik".

Beste lan sil eder bat ba zan Aita Santi'ren elerti lanean: ekin eta eragin. Idazgarri, oroigarri ta goragarriak ziran Larrako olerki sariketak. Batetik jazarpenak ta bestetik lanketa udabarri zirudian euskeraren arloan. Bizkaitar ta Gipuzkoar alkartzen giñan euskera orbiztu ta edertu nairik gure izkuntzaren jazarpen aldi gogorretan.

Sariak txikiak ziran, baiña euskerarenganako lan gogoa ta ekiña sakon ta ertzik bakoak ziran ta guzti ori sortu ta landu eban Aita Santi'k urte askoren buruan. Ez da errez esatea, euskerak zenbat zor dautson bizkaitar Amoroto'ko semeari.

Jakintsu askok ez dakie baiña, "EUSKERAZAINTZA"ko izar bat da Aita Santi Onaindia. Zuk egin zenuan kultura zabaltze lan ederrak, frutu ugariak emon dagizala Euskalerrrian, gizonen artean.

PAULIN

AITA SANTI ONAINDIA EUSKERAZAINTZAKOA

Eusko baserri zoragarriak
mendi bitarte artean
Bizkai aldeko Amorotoan
urretxindorrek aidean
udabarri ta urrezko udan
mutil koskorra lanean
aldi artako oitura legez
itxaurren beian aurrean.

Zuri begia zuzendu eutzun
maitasunez dei eginik
aingeru antzo artu zinduzan
eusko baserri aldetik;
doai ederrez apaindurikan
jarraitu zeuntsan gogotik
mutil gaztea aurrera, doa
Jaungoikoaren eskutik.

Zeru altutik begira egon
gizadiaren Artzaiña,
Euskalerriko lurak agurtuz
bedeinkapenek batera;
mutil zintzoak eta langilleak
batu nai zitun etxera
fede-zaleak argi egien
euskaldunen baratzara.

Sinismena ta langille sena
garbi, zeunkazan barnean
baita erria nungoa ziñan
euskaldunen lurraldean;
Jaungoikoa ta eusko bizitza
amets zenduan lurrean
zerua eta eusko gizadi
batuz alkartasunean.

Baratz eder bat sortu zenduan
lora ederrez landurik
egite sendoz ta ezilkorrez
kultur lana jorraturik;
milla lan eder egiazkoak
erriari opaldurik,
eskar onetan agurtu dozu
biotza zabal zabalik.

PAULIN

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

AITA SANTI ZANAREN OROIMENEZ

ALKAR EZAGUTZEN

Il danetik bere gomuta biziaz diardut gau ta egun, ta berari buruz zertxobait idaztea gura izango neuke. Neugaz ainbat artu-emon izan ebazan eta.

Urteak dira bere barriak nebazala bere idazlan batzuk irakurriagaitik ain zuzen.

Alan da be bein nire bizitz-oiñara eldu jatan batik bat Beiztegi'tar Jon'en eragiñez. Ni sasoi artan Beiztegi'tar Jon'en eta Arenaza'tar Josu'ren laguntzaille nintzan "AGUR" aldizkariaren aldian.

Ogei miñutu inguru nire etxe-bizitzan nigaz itz egin ondoren, pozarren geratu nintzan Aita Santi'ren lenengozko ezagueraz.

Nik Beiztegi Jaunari idazlantxo batzuk ("Agur'ren" urtetan ziranetik at) bere txirrinkol-dendan eskuz emoten neutsazan, nire "LANEGI" Akademia bere dendatik urtean egoan-eta.

Emon neutsazanen artean garrantzitsuenak alan da ere, idatzbarri nebazan Euskerazaleak'en Montiano Jaunak eskatuta nik egiñiko antzerki bi ziran. Orrez gain Ekuador'ko Jibaros inditarran ta buru-motzaille diran orrei buruzko ogeitamar orrialdeko kondairatxo bat.

Nire antzerki bi lan oneitatik lenena gaur egun Gotzai laguntzaille dogun Etxenagusia'tar Karmelo'k onartu eban; bigarrena nire lagun miña zan "ABELETXE" izenordez eban Ziarsolo'tar Manu'k. Bere liburu izkirimiz josia dogun "Gazigazak" bein eta geiagotan irakurri oi dot.

Antzerkiok bataz beste 30 orrialdekoak ziran biak, alan da be laburpen osoz zertuak. Beiztegi Jaunak Aita Onaindia'ri emon oi eutsazan, ta ortik Aita Santi nire etxera etortearan zergaitia. Aurrerantzean gure Karmeldarra txirrinkola dendan Jon'egaz bat noizipein aurkitzen neban.

Ori dala ta Beiztegi'tar Jon'egaz batera asi nintzan urtero Kristo Erregearen Egunean Larra'ra joaten. Orrela urteak eta urteak.

LARREAN KRISTO ERREGE EGUNEAN OSPAKIZUN ARRUNTA

Lenen eta bein Euskal Mezea, euskal kutsuz gañezka, itzaldi borobillez, abestiz eta abar, noizipein Aldaran bertan olerkari batek bertsoak abestuz. Erriko jendeak be gugaz batera abesten eban alkarturik gengoanez.

Asiera baten lekaidetxean bertan bazkaltzen genduan eta oso merke gogoratzen nazan lez, eta mezik urteeran ia geienok itauntzen geuntzen Aita Santi'ri ia bazkalorduan barbantzurik izango genduan ala ez. Ze nolako barbantzuak ziran!

Atadian urrundik etorritako Larra-zaleak batzen giñan; ots, Ugarte'tar Martin eta beste oiñatiar batzuk, Legazpitarrak bertsolari ta abeslari bikaiñak, Mungitarrak, Bilbotarrak eta abar luzetxo bat.

Ugarte'tar Martin'ek urtero sari bat lortu oi eban bere errikoi euskera eder apartekoaz. Lanak beti luze samarrak bereak.

Gero batzarra alboko eskola etxetxo baten izaten genduan luze ta astiro, mueta guztiko bertso ta olerkiak aztertuz. Enoa luzatzera baiña zeintasun-kualidadea beti goigoiko maillakoa

izaten zan. Sari banatzeak ondoren, diru urritasunez baiña olerki onenatarikoaz Aita Santi'k esaten eban lez. Bein eskolatxo ondoan argazki bat egin euskuen eta AGUR'en agertu zan.

Lekaiñeak etorri ziranean batzarrak lekaidetxean bertan areto aundi baten egiten genduzan, ta liburu batzuk merke erosteko abagune bat geunkan. Orduetik asi giñan (tamalez danen eritxiz) bazkaria inguruko jatetxe on baten jaten. Nik aurretik esaten neutsen jatetxeokoi zeinbat izango giñan or-nunbait bazkal orduan.

Peña'tar Xabier irakasle bikaiñak jasoten zituan bazkaria ordaintzeko diruak eragozpen barik eta bera zeruratu jakunean jardun ori niretzat izan zan. Orrez gain Aita Santi'k eskatu eustan jaiaren azalpena "Agur" aldizkarian urteko egiteko, aurreko urteetan berak esateke lan ori egiten neban-eta. Bardin "ZER" illerokoi asi giñanean.

Bazkal ostea alai ta abestiz josirikoa izaten zan egitan. Bertsoak ugari; legazpitarrak, Aurre-Apraiz'tar balendin'ek eta Balendin'i txaloka bere euskal abestiekaitik. Azken baten Paulin'en bertsoak. Paulin'ek sarritan nire laguntasuna gura izaten eban bertsoak abesteko.

Danak ez ziran bazkaltzera gelditzen, baiña Larran Gipuzkoa ta Bizkaia'ko onenatarikoak batzen giñan. Bein Zaitegi'tar Jokin, berari omenaldi berezi bat egin geuntzanean, gugaz izan genduan. // Jokin nigaz Guatemalan urte bi egonikoa zan. // Karmeldarren artean Aita Lino noizipein, Aita Goiria sarritan, Aita Zubikarai ta batez bere Aita Arostegi'tar Luis, Aita Onaindia'ren laguntzaille bikaiña benetan. Gero besteen artean Muniategi'tar Sabin, Zubikarai'tar Augustin, Zubiri'tar Iñaki. Bein gitxienez, Kerexeta'tar Jaime ta Olazar'tar Martin Abade Jaunak be bertaratu ziran.

AITA SANTI'GAZ ALKARIZKETA MAMINTSU BATZUK Biozkadak

Bein deitu eustan bere lorategi-baratzara beragaz berbalditxo bat eukiteko. Guztiriko gaietaz itz egin genduan, ta ordu erdi baten edo gerotxoago deitu eutseen joateko. Urtero bere txartela bialtzen eustan aldiz Larra'ra joateko.

Orain bizpauri izkirimiri bion arteko alkarrizketa mamintsu ta laburrean.

1.- Kazetari ona zara, berak. // Eta nik: - bai, baiña titulo bakoia. // Eta berak irriparez: - Tituludun asko be...

2.- Nik bein: - Deunak izan bear gara Aita Santi. // Berak: - ortarako gagoz ludi ontan. // Eta nik barriro: - Ni amar zentimokoa - edo naz eta zu ogerleko disdiratsu erakoa. // - Ez da ainbeste izango. - berak barreka. // Nik: - datorren urterako ia erreale batekoa nazan. // Eta berak: -ai Josu, Josu...-

3.- Bazkal orduan zerrak (txuletak) izaten genduzan jateko, ta maiko lagunak berari: -Gaur, Aita Santi txuletak be jan zeinkez. Ez? - // Bai-ba gaur baimena dogu ta.

4.- Zazpi erki edo "probintziko" giltzari bat emon neutsan bein, Agirre Lendakaria zanaren irudiaz uste dot, eta berak pozez beterik: - Olakoak atsegin jakuz benetan, eta iñork be ez dauskuz emoten alan da be.

5.— Idazlan luzeagoak idatzi bear dozuz—, berak. // Eta nik: — Ez daukat astirik ortarako, klase asko emon bear dot eta. Gañera etxean lagundu, nire eleiz-parrokian be bai ta abar... // Berak: Nik bere emoten ditut klaseak. // Nik: Bai, baiña ezin neinteko zugaz bardindu; nire klaseak errezoagoak dira; alan da be Izkuntz-Eskolarako ainbat eta ainbat andere irakasle ta andereño gertaten ditut. Nire zer berezia laburpenak egitea da; Ikasliburu edo texto geienak laburkiro idatziak dodaz nire ikasleai laguntzearren. // Barrero nik berari: — Zuri be emon neutzun nik egiñiko Bizkai'ko aditzaren "20" orrialdeko laburpen bat. // Berak: — Bai ta atsegin izan jatan. // Azkenez Aita Santi'k be emon eustazan bezuza lez liburu eder batzuk: Odisea, Faust eta besteren bat.

Olako artuemonak izan ditut gure gaingaiñeko ta oparutxu idazle, sermolari ta irakasle izaniko Aita Santi'gaz.

Belgikan be izan neban irakasle aparteko bat, Aita Estefania Josu-Laguna. Guatemalan, ni an nengoala il zan. Bera be bilbotarra zan. // Guda aurretik, Tournai'n Euskal Akademi bat izan genduan beraren ardurapean. Oso ona benetan. An egon ziran nigaz bat, Aita Muro; Arza'tar Anton; Barandiaran'dar Gaizka; Mendezona'tar Fernando; Aita Errazkin; Leibar eta abar...

Baiña geien baten oroz gain biotz zirrara uka ezin bat egin daustana Aita Onaindia'tar Santi izan da.

Zerutik lagundu dagizkula euskaldun zintzoai ta gure Euskal-lerri maiteari berebat, Karmeldar zintzo, alai ta baikor nek. Bearrizan aundian eta ilduratuta dogun aberriak olako baikortasuna bear dau. Alegindu gaitezkan guztiok ortarako.

BERE BIZITZAREN BESTE GORABERA BATZUK

1.— Bere idatzi guztiak onak benetan. Baiña euren arteko bat, "MILLA EUSKAL OLERKI EDER" gaiñerentariako bat zala uste dot.

Idatzi ori 1954'gko. urtean argitaratua izan zan. Aldi orretan onelako gauzak argitaratzeko guztiz gatxa izaten zan baimena lortzea. Alan da guztiz bere, gure Aita Santi iraunkorrek baime-na lortu eban eta argitaratu ondoren salgai agertu zan idaztegi-tan.

Ez ziran igaro egun asko ta frankotarren txiñelak joan ziran eta arrapatu ebezan idatzi guztiak.

Eta ez ori bakarri; maltzurak ziralako, zer uste dozue egin ebela? Auxe bera: Ludian-zear zabaldu idaztiok, erakusteko Franko'ren agindupean askatasun osoa egoala edozein gauza argitaratzeko.

Baiña euren zitalkeria txarto urten jaken, zabalkunde orregaz Aita Santi'ren izena ezagutu ta goraldtu zan ludian-zear, toki askotatik eskutitzak artu ebazalako zorionak emoten.

Oneri buruz Aita Santi'ren lagun batek bein itaudu eutson ia egia ete dan JAPON'etik eskutitz bat artu ebala zorionak emoten idatzi orregaitik eta berak erantzun eutson baietz eta Ingalaterra ta beste tokietatik be bai.

Ara nun txarkeri bategaitik geure Alta Santi, ezaguna izan dan ludiko toki askotan. Emen be ikusten da Jainkoak artez idazte dauela, lerroak okertuta egon arren.

2.— Bere bizitzan, ez uste Aita Santi'k ez dauzela makalak igaro. Ez orixe! Batzuk uste izango dabe lekaidetxe barruan ondo ta baketsu bizi izan zala.

Baiña ez da olan izan. Geure gula zitalak be arrapatu eban eta gudariekaz "Kapellaua" lez egon zan. Eta gero, gudea amaitu ondoren, beste abade ta lekaide askogaz espetxeratua izan zan.

Espetxe batzuetatik igaro ondoren ots, Santoña, Nanclares ta Dueñas gitxienez, CARMONA'ko espetxera eldu zan. Espetxe orretan Espaiña'ko sozialisten gorengo buru bat zana BESTEIRO'tar JULIAN Jauna be aurkitzen zan. Auxe egia dala argazki baten ikusten da. Argazki ori, izen guztierekaz, Aita Santi'ren "OROI-TXINPARTAK" idaztian aurkitzen da.

Espetxetik urtenda gero, espaiña'ko karmeldarren lekaidetxe batzuetan egon bear izan eban erdi-espetxeratua lez.

Urte batzuk igaro ondoren lortu eban bere Larra'ko lekaide-txera biurteza. Eta emen, danok dakigun lez, buru-belarri lanari lotuta ekin eutson. Olan itxi dausku idatzi zerrenda ederrenetari-ko bat. Milla esker AITA SANTI ONAINDIA, egin dozun lanagaitik.

Bilbao'n, 1996'gnko. Otsailaren 16'an Arregi'tar .Josu'k



AITA SANTI ONAINDIA

1.996-ko Otsaila'ren 11-an, Gasteiz'en ilzan Aita Santi Onaindia.

Biaramon arratsaldean, illunabarrean, bere bizirik geiena igaro eban Larrea'ko karmeldarren konbentuan, euskalzaleok bere inguruan batu giñan, oituraz esaten dan tez, azken agurra egiten.

Erriaren gogo eta adierazmena beste bat zan. An batu giñanok agur orde, gogoan zaitugu esan nai genduan ixiltasunak eta biotz-miñak erakusten daben argitasun eta zintzotasunagaz. Gogoan zaitugu eta izango zaitugu.

Izan be euskal etxe askotan, liburutegietan, emeroteketan eta abarretan, aren idaztiak erabilgarri eta ikergarri izango dira.

Kontu egin Aita Santi 1.927 urtean asi zata aldizkarietan idazten.

Eta azken urtetan ezagutu izan dan aldizkariaren boom arte, oraintsuarteko euskal argitapenetan gaitz aurkituko da bere lanen bat argitaratu ez dauanik.

Or doguz, bere frailekide izan dan Julen Urkiza'ren ikerketei esker, bere lanak irakurri leikezan albistari eta aldizkariak:



AGUR (illero, amabosteroko eta astero-koa). Bilbao.

ARAN.— Arratia'ko aldizkaria.

ARANZAZU.— Arantzazuko fraileen argitapena.

BOGA-BOGA.— Ondarroako eleiz erakundearen boletina.

EGAN.— "Boletin de la R.S. de Amigos del Pais" en geigarria.

EUSKAL ESNALEA.— ("Euskalerrriaren Alde" aldizkariaren atala).

EUSKERA.— Euskaltzaindiaren aldizkaria.

EUSKERAZAINTZA.— Euskeraren Erri Akademiaren iru-illebeteroko aldizkaria.

EUZKADI.— Egunkaria. Bilbao.

EGUNA.— Euskal egunkaria. 1.937.

EUSKO GOGOIA.— Bi illerokoa. Guatemala.— Baiona.

GAIK.— Bilbao.

GOIZ ARGIA.— Asterokoa. Donosti.

JAKIN.— (Iru-illero, Arantzazu-Donosti).

JESUSEN BIOTZAREN DEYA.— Bilbao.

KARDABERAZ.— Donosti.

OLERTI.— Larrea-Zornotza.

PRINCIPE DE VIANA.— Iruña.

PYRENAICA.— Mendizaleen aldizkaria.

Bilbao.

RENACER.— Gasteiz.

SASKI NASKI.— Illerokoa. Iru illerokoa.— Donostia.

YAKINTZA.— Donostia.

ZER.— Illerokoa. Euskerazaleak. Bilbao.

ZERUKO ARGIA (Asterokoa. Donosti).

Esandako onein gain, bere gogo eta yakintza oparo eskintzen ekian Karmeldarren argitapen izan diran edo ta diran.

KARMENGO AMAREN EGUTEGIA.— Larrea. Amorebieta.

KARMENGO ARGIA.— Illeroko aldizkaria.
KARMEL.— Bi illerokoa. Iru illerokoa.—
Larrea-Zornotza.

GOIZNABAR.— Bilbao, 1.975. 243 orrialde.
LAS CIEN MEJORES POESIAS DE
AMOR DE LA LENGUA VASCA.— S. Onain-
dia-Gregorio San Juan. 1.975. 215 orrialde.

NERE BASERRIA.— Euskal Poema.— Aita
Onaindia. 1.985. 187 orrialde.

Bere idazlanak, batzutan frailetasunak eragi-
ñak, beti be kristau fedeari lotuta bizi ziranez,
batzutan goralpen ziran, bestetan kritikak.

Esan lei Aita Santiren gogoia euskaldun guz-
tiei zerbait irakurri eragitea zala.

Victor Franceschi'ren CARBONES liburuan
irakurten dana. An baltzen berezko etsipena eta
nekea gogoratuaz:

Iremos al frente
de aquel restaurant,
solo a conjugar:
Yo como, tú comes.
... ¿El come?...
Nosotros comemos;
cuando todos comamos
seremos felices.

Orren billa ibili zan bera euskal munduan.
Danok euskeraz irakurtearen billa.

Origaitik batzutan bizkaieratzen eta bestetan
gipuzkeratzen alegindu zan. Eta bizkaieraz argi-
taratzen edo ta gipuzkeraz.

Eta bere liburu eta idaztien argitapenerako
bear izaten eban dirutxoa atarateko edo lagun-
garri izateko, ba ekian idaz-leiaketatara lanak
baltzen, andik deitu, ala idatziaz.

Sariak irabazten punterengotzat ezagutu zala,
autortu bear.

Liburugintza

1.954 urtean asi zan liburuak argitaratzen.
Ez ziran urte bare ta baketsuak euskal liburu-



gintzan asteko. Zentzura denborak, zentzura
bekaizti eta itsua, eta gero be, ortik igarota
be, trabak, ostopoak, bir-ikusketak eta etoike-
riak.

Urte orretan kaleratu zan MILLA EUSKAL
OLERKI EDER deiturakoa, 1.115 orrialdez.

Beraz arduratu ziran Aita Santi eta Aita
Lon'ek zerbait esaten ekien orduko joan eto-
rietaz. Zenbat istorio igaro bear izan eben, ia
eguneroko baiketen bildurrez, kaleratutako
aleak ezin zainduta.

Nire ustez, Aita Santiren luma eta eskutik
kaleratutako liburuak, sailketa berezia bear
dabe.

Batzuk argitaratzaile lez kaleratuak dira,
iñork idatziak, Santi'k sarreraren bat edo aur-
kezpena eginda.

Beste batzuk euskeratzaile lez berberak argi-
taratu ebazanek, nai eta idazle jatorra besteren
bat izan.

Ba daukaz alkar-lanean idatziak, baña argita-
rapenetan eskurik artzen ez ebala.

Eta ba dira bere sormenekoak, eta berberak
argitaratuak.

Ikus daiguzan:



Argitaratzaille

- 1.956.— OLERKIAK. Felipe Arrese Beitia.— 688 orrialde.
- 1.960.— BERTSO BERRI TA KANTAZAR.— Tomo bi.
- 1.964.— ONDARRAK. Txomin Agirre.— 264 orr.
- 1.965.— JOLASKETA.— 585 orr.
- 1.966.— ABARRAK. E. Bustintza "Kirikiño". 335 orr.
- 1.968.— GIZA BIZIA.— 64 orr.
- GIPUZKOAKO DANTZA GOGOANGARRIAK = J.I. Iztueta. A. Santi'ren edeskera. 399 orr.
- IPUIÑAK. R.M. Azkue.— Bilduma ta itzaurrea A. Santi.
- 1.971.— GOIZNABAR. Olerki bilduma. 243 orr.
- 1.974.— ESKUTITZAK. EUSKAL LITERATURARI BURUZ. Idazle eta adiskideak berari egiñiko kartak. 302 orr.
- 1.974.— OLERIAK. E. Urkiaga "Lauaxeta".— 186 orr.
- 1.975.— LAS CIEN MEJORES POESIAS

- DE AMOR DE LA LENGUA VASCA.— S. Onaindia, G. San Juan.— 215 orr.
- 1.978.— AZKATASUNAREN YARRAI.— J.A. Agirre. 415 orr.
- 1.980.— BIGARRENGO ABARRAK. E. Bustintza "Kirikiño". 206 orr.
- 1.981.— BIDE BARRIAK. E. Urkiaga "Lauaxeta". 146 orr.
- 1.981.— GAURKO OLERKARIEN EUSKAL LAN AUKERATUAK.— 106 orr.
- 1.984.— EGOITZAK EDO BARNE GAZTE-LUA.— Sta. Teresa de Jesús.— 239 orr.
- 1.984.— OLERKIAK. Balendiñe Albizu. 259 orr.
- 1.985.— 25 ANTZERTI LABUR.— 167 orr.
- 1.985.— OLERKI GUZTIAK. E. Urkiaga "Lauaxeta".— 523 orr.

Euskeratzaille

- 1.963.— IRU POEMA. Rabindranath Tagore.— 176 orr. (Kuliska sorta-Donostia.)
- 1.965.— XABIERTXO. I. Lopez Mendizabal.— Bizkaieratzalle, A. Onaindia.
- 1.966.— BIRGILI. Idazlanak osorik.— 383 orr. Euskeratzaille. A. Ibiñagabeitia. S. Onaindia.— Argitarapena: A. Onaindia.
- 1.969.— AMAITU BAKO POEMAK (Poemas inacabados). L. Arostegi Gamboa. 97 orr.
- 1.982.— Intxitu eta lezeko ANTXIÑAKO JENTILLEN EZPIRITUA EUSKO LURRERA BIURTZEN DA. J. Arkotxa Goikoa-Leslie Mackenzie. 242 orr.
- 1.985.— JAINKO ANTZERKIA. Dante Aleghieri.— Euskeratzalle ta argitaratzalle. 366 orr.
- 1.985.— ODISEA. Homero.— Euskeratzalle ta argitaratzalle. 337 orr.
- 1.986.— AGENDA DIETARIO.— Euskeratzalleak: A. Onaindia, A. Zubikarai.
- 1.986.— FAUST. J. W. Goethe.— 305 orr. Euskeratzalle ta argitaratzalle.

1.987.— IPUÑAK. Pio Baroja. 199 orr. Euskeratzalle ta argitaratzalle.

1.988.— MONOGRAFIA DE LA LEDANIA O CONCEJO DE AXANGIZ= M.V. Gondra.

Alkar lanean

1.956.— GOI ZALE.— Pi Etxebarria-Jagoba Onaindia.— 544 orr.

1.963.— EGUNEROKO MEZA.— J. Kerexeta, S. Onaindia. 859 orr.

1.963.— ON BIDEA.— Santa Teresa.— Eusk. L. Akesolo, J. Onaindia.

1.979.— ERLIJO EZIKETA ARLOA.— Eusk. S. Onaindia. Zuzentzalle J.M. Remente-ria. 117 orr.

1.980.— LA NAVIDAD EN EL MUSEO DE BELLAS ARTES. S. Onaindia, Juan Juaristi. 61 orr. "Temas Vizcainos" saillean.

Sormeneko lanak

1.966.— ENBEITA OLESKARIA.— 159 orr. (Kuliska sorta).

1.968.— LARREA ETA KARMELDARRAK.— 123 orr.

1.972.— EUSKAL LITERATURA I— XVI, XVII, XVIII giz. 296 orr.

1.973.— EUSKAL LITERATURA II.— XIX mendea.— 480 orr.

1.974.— EUSKAL LITERATURA III.— 1.895-1.920.— 412 orr.

1.975.— EUSKAL LITERATURA IV.— 1.910-1.935.— 448 orr.

1.977.— EUSKAL LITERATURA V.— 1.915-1.940.— 464 orr.

1.978.— EUSKAL ELERTIA.— 230 orr.

1.978.— LAMIÑAK, ORRAZI ESKEAN.— 215 orr.

1.978.— LEYENDAS Y TRADICIONES

VASCAS DE NAVIDAD. 53 orr. ("Temas Vizcainos").

1.981.— SANTA TERESA ELIZ IRAKASLE.— 128 orr.

1.982.— ARANA GOIRI TAR SABIN OLERKARI.— 168 orr.

1.984.— EUSKALDUNAK ETA OSASUNA.— 180 orr.

1.985.— NERE BASERRIA.— Euskal poema.— 187 orr.

1.987.— GERNIKA.— 158 orr.


1.988.— OROI TXINPARTAK.— 472 orr.

Beste lanak

Ez ziran goiko zerrendetan amaitu bere lanak.

Geroago, larogeiak urtetan sartuarren, lanean ekin eutsan, lanak argitaratzen, ori zan bere atsegin, jolas eta bizigarri, eta arrezkero beste lan oneik kaleratu zitun:

1.989.— OLERKI GUZTIEN BILDUMA.— Julen Urkiza'k prestatua. 315 orr.



OMENEZ

1.989.— SANTA TERESAREN BIZITZA. (Itzulpena) 380 orr.

1.990.— DONIBANEKO GURUTZ OLERKARIA.— 342 orr.

1.990.— EUSKAL LITERATURA VI.— Gure mendean. 318 orr.

1.991.— LIXIEUX'KO TERESE.— Itzulpena.— 318 orr.

1.992.— ODAK ETA EPODOAK. Orati, erro-matar olerkari.— euskeratua. 316 orr.

Aipatu bearreko geiago

Orañarte esana asko dalarik, Aita Santiren bizitzako ekitaldien zerrenda orretan lagako ba gendu, ez giñake zeatzak izango.

Batetik gogoratu bearreko da Aita Santi erdalan eta testu ugarien euskerara itzultzaille izan dala.

Ez bakarrik eleiz gaietazko edo ta fedeari ikututen dautsen idazti eta lanen itzultzaille.

Or doguz gerkar klasikoen lanak eta latiñezkoak. Or baita munduko beste izkuntzen litera-

tura alorrean maisu eta eredu agertu diran idazleena.

Or Garcia Lorca, Machado, Gabriela Mistral, Neruda, Papini, Selgas, Rabindranath Tagore, Unamuno, Verdaguer, Bretch eta abar, tankera ez bardiñetako idazleak, garratzak eta zorrotzak batzuk, minbera eta eztitsuak bestek; zeatzmeatz idazten dakienak batzuk, zabal, aberats eta loretsuak bestek.

Idazleak zeatz itzultzen jakin bear dau, bakoitzaren nortasuna zainduaz, eta ez aren pentsabidea zainduarren, bere itz eta esanak eta esateko erak erraztasunaren egokitasunez zelalala itxuratuta itxi.

Orretan alegintzen zan textuak zorrotz erabilten, baña ba dakie itzulpen askok, batez be zuzenetik egiñak ez diranetan, itzulpeneko pekatuz etorri ta norberari pekatu ori kutsatuten.

Or dagoz, baita, aldizkarietako artikulua. Idazleari bere gatza eta ozpiña eskatuten dautsenak, egungotasun edo gaurkotasuna bear izaten dabenak, balioa galdu eragin barik, zimeldu aurretik iruntsi bear izaten diranak.


Zenbat orrelako lan egunkari, aldizkari, tar-teko liburuska eta antzerako orri eta papere-tan?

Jo daigun asi zanetik gerra arteko lana, ordena estu bateko fraile barri baten lana izan zata, baña guda ondoren espetxe eta baiketak jazan ondoren barrero lanean asi eta beste 43 urtetako lana?

Eta euskal idazleen edestilari lez, Euskalerrri osoan zear egon diran eta dagozan idazle ugari eta aberats, nai bein-beiñekoen bizitza eta zertzeladak batzen eta agertzen artu eta erabili eban lana?

Berari esker, aidean ezagutu ziran askoren goraberak, zeaztasunez jakiteko aukera dogu.

Onetan ezin ukatu Santi Onaindiak argibide ugari lortu ta zabaldu dauskuzanik. Eta ori egin bearreko lana zala ezagutu bear.



Argibide ta azterketa batzuk

Alkar-laneko ekintzetan.

Aita Santiren ekintzen artean "Karmengo Argia"ren denborako bat agertzen da.

Bera lankidetako bat Aita Lino Akesolo izan zan.

Lino Akesolo Derio'ko Udako Euskal Ikastaroerako baten omendua izan zanean, alkarriketa bat egin eutsen.

Galderetako bat au izan zan:

"Zu eta Aita Santi gaztetatik bizi izan zare alkarrekin. Ze euskal lanetan artu dozue parte batera?"

— Bai, alkarrekin bizi giñan gure ikasurteetan, eta alkarrekin jardun dogu euskal lan batzuetan. Lenengo ta bein, Santa Teresitaren **Arima baten Kondaira** dalakoa, biok alkarrekin euskeratu genduen ogei urteren inguruan genbiltzala Gasteizko negualdi otzetan. Nik azken-eskua emonda gelditu zan neure euskuzko kopia baten; baiña galdua da.

Bigarren, Santa Teresaren **Onbidea (Camino de Perfección)** biok asi lenengo kapituluaz (**Karmengo Argia** aldizkarian), nik jarraitu gerratea etorri zan arte, eta azkenez, 1.962,an, bion artean amaitu (ak kapitulu bat eta nik beste bat) eta argitaratua.

Irugarren, euskerazko Liturgia asi zanean, domeka eta jaietako mezak fitxetan sarrera, oar eta guzti. Fitxa oneik gero Kerexetaren Eguneroko Meza liburuan sartu ziran.

(Lino Akesolo, **Idazlan guztiak**, Karmel, 1.987-3. Julen Urkiza'k Aita Linori egiñiko alkarriketa).

"Karmengo Argia" zala ta beste baten, lenengotako arduradunen artean, au irakurri geinke:




"Aita Anbortsik artu eban lenengotan Lixieux'ko Teresetxuren gogoeta irakatsiak aztertzea.

Baiña andik laster Indietara bialdu eben, an Teologi irakasle izateko (eta azkenez gotzain egin eben). Eta emendik alde egin ebanean, gai orretan Aita Santi gazteak jarraitu eutsan, meza emon baiña lenagotik asita".

Eta gerotxuago, garai aretako idazle barrien izenak azaltzen asten danean, jakingarri au emoten dau A. Lino'k:

"Eta Euskalerrian jarraitzen ebenetatik ez ziran batzuk luma makalak agertu. Len aitatu dot bat: Aita Santi (Jagoba, Igotz, beste izenez eta ezizenez) idazle gazteren bat eriotzak eroaten euskunean, illeta soiñu negartiak jotzen, edo beste edozertan, edo Ebanjelioko Zoriontasunak azaltzen, edo bertso lirikoak parra parra ateraten, beti egin eban zoli, aldizkaria bizi izan zan aldi guztian, orrek azkenera jo eban arte.

Beronek eta neuk artu gendun Ama Teresaren **Camino de Perfección** euskeratzeko lana. Zetako? Ze asmotan? Prailleak legetzat artuta



euken, urtean bein, aparitan Ama Teresaren liburu ori irakurtea, guztiak ixilik entzuten ebe-la. Lege ori euskeraz betetako erreztasuna emotearren artu genduan lan ori. Lenengo kapituloa bion artean egin gendun (bakotxak bere zatia euskeratuta), nik egin nituan urrengo zortzi kapituloak. Urteak geroago, bion artean amaitu eta tomo baten argitaratuta dago orain Teresaren liburu ori euskeraz. **Igotz-Oba** izan zan artu gendun izen ordea. Igotz, Amoroto aldeko mendi baten izena eta Oba Dimako auzo baten izena".

Esan daigun **Karmengo Argia** aldizkariak bost urte ta erdi iraun zitula. 1.936'ko Dagoni-lean agertu zan azken zenbakia. Lau milla (4.000) arpidedun lortzera eldu zan.

Liburuen zerrendan alkar laneko batzuk agertu dira.

Ontaz esan bear dogu Aita Lino'k ba dakizala bere idaztietan laguntza oneik autortzen.

"Karmel" aldizkarian 1.991 urtean, Etimolo-

gi billa deituraz Akesolo'k idatzitako lan baten au irakurten dogu:

"Aita Onaindiagaz batera, ba neroagoian Kepa Enbeitaren bertso lanak "Euzkadi" egunkari zarrean batzen..."

(Etimologi billa. Karmel 1.991-3)

Lagunarteko lanei buruzko beste au:

"Gaztelu'ko seme zan Goikoetxea tar Iñaki'k gertu eban "Musika Ixilla" deiturako liburua.

Eta liburuan bertan be ba dauka Aita Santi'k bere eskua.

Ara zer diñon Aita Lino'k: "Liburu orrek eztau dana Gaztelu'rena. Aita Onaindia eta Orixe'k bere esku artu dabe or. Aita Onaindiak Joan Kurutzekoaren bizitzako barri emonaz, eta aren olerkien balioak azpimarratzen, eta **Cántico Espiritual** olerkiaren itzulpenaz, eta bardin Orixek berearenaz. Olan liburuak **Cántico** orren iru itzulpen emon zituen. Irurak egin dabe or, bakotxak bere saioa, Joan Kurutzekoaren erdal-olerkiari euskal doiñua emoten.

Karmel 1.990-3/4.

IRIZPIDE ETA ABURUAK

Liburu argitaldari, idazle, kontulari, olerkari eta abarretan nor izan dan iñoren irizpide eta aburuz agertuko dogu.

"Gerraondoko argitara bideak malkartsuak izan ziren, oztopo administratiboengandik lehengo eta euskal edizioen zabalkunde kaskarragatik gero. Patxi Unzuerrunzagak bere Zarauzko Itxaropena inprimategi/argitaletxetik, eta Aita Santiago Onaindia karmeldarrak Larreatik (Bizkaia), adibidez, egiteko ederra burutu zuten; besteak beste "Kulixka Sorta" edo Milla

Euskal Olerki eder (1954) argitalpen giltzarriak izan ziren 1960 aurreko basamortuan".

(Euskara-Euskaldunon hizkuntza" Joseba Intxausti. 1.990)

"Nekatzen ez dan idazle ta argitaldari. Literatura sail ezberdian erabilten daki olerti, itzulpen, kritika, itz lauz...

"Karmel" eta "Olerti" sailen zuzendari da eta urtero eratuten dau Larrean "Olerti Eguna", aurrez olerki leiaketa iragarriaz.

Bere euskera garbi jokerakua da, gogortsua, erri euskeratik zerbait aldendua...".

(Karmelo Etxenagusia Uribe, "Euskal idazleen Lorategia, Bizkaieraz-Itz lauz" Derio, 1965)

* * *

"Idazle ugaria: eragille ta argitaratzaille aspertu eziña. Nok esan zenbat lan egin dauan euskeraren alde, batez bere gerra osteko urte luze illunetan?

Bizkaieraz eta gipuzkoeraz, itz-lauz eta neurtitez, goi maillako euskera landu, garbi ta aberats bat lortu gurean diardu. Izen-orde oneik erabilten ditu: "Igotz", "Otarri" eta "O".

Bere idazlanik onenak oneixek dira.

"Milla euskal olerki eder". Euskal -poesiaren antologirik andiena.

"Iru poema". Tagoreren iru poema euskeratuta. Bizkaieraz.

"Eguneroko mezea". Bizkaieraz.

"Gure bertsolariak". Gure bertsolari ta bertso-laritasuna ezagutzeko liburu ederra. Bizkaieraz.

"On-bidea". Santa Teresaren "Camino de perfección" euskeraz, aita Linorekin batean. Bizkaieraz.

"Jolasketa". Eskola umeentzako kanta, jolas eta ipuin lorategia. Bizkaieraz eta gipuzkoeraz.

"Birgiliren idazlanak osorik". Ibiñagabeitia eta bien artean itzulita. Gipuzkoeraz.

"Danteren Jainko-antzerkia". Danteren "La Divina comedia". Gipuzkoeraz.

"Odak". Horaciorenak. Gipuzkoeraz.

"Esoporen ipuiñak". Bizkaieraz.

"Larrea ta karmeldarrak". Bizkaieraz.

"Giza-bizia". Gipuzkoeraz.

(Mikel Zarate. Bizkaiko Euskal Idazleak" Derio. 1.970)

* * *

"Gure bertsolariak".— Irureun da ogetamaika orrialdeko lan mardula eskeintzen digu Aita Onaindiak bertsolaritzari buruz... Utsune ederra bete digu liburu onek. Ba dago bertan zer ikasi... Emendik aurrera, bertsolaritzari buruz jardun nai duten guziak izango dute liburu onen bearra".

(Juan San Martin, "Egan" 1.965)

* * *

"Onbidea".— "Ba zan ordua, liburuaren itzau-rean irakurtzen degun bezela. Ba zan, bai, Teresa deunaren liburu eder au euskeraz ikusi genezan ordu. Au eta beste guztiak. Bañan au batez ere...

Biok, Aita Onaindia eta Aita Akesolo, karmeldarrak, zein baño zein sayatu dira beren egiteko zallean. Batek kapitulu bat, eta besteak urrengoa, guk dakigunez, eta idazkerak berak ere aditzera ematen duanez. Bizkayera jator jatorrean. Euskeratze lan erreza ez dalarik, naiko "errez" egiña. Ots, naiko argi. Emakume bizkor aren irudimena nundik nora dabillen, erderaz bezain errez aditzeko eran".

(M. Lekuona. "Egan" 1.963, 4-6)

* * *

"Jolasketa".— "la-ia seireun orrialde deukozan liburu lodikote bat geiago, Gaia? Euskaldun umientzako jolasak, abestiak, ipuiñak, irakurgaiak. Gauza asko, danetik pixka bat, euskal idazle ezagutuen atal egokiak eta erri-jakintza ta kantuetan kirian-kirian eraz ipinita urteko amabi illebetetarako.

Umeetxoentzako bakarrik ez da izango liburu au. Urteetan aurrera goazanentzako be liburu-egokia dogu beran.

(Nikolas Alzola Gerediaga, "Egan" 1.967 1-6)

"Milla euskal-olerki eder". "Liburu eder ortan oraindañoko euskal Olerti osoa arkitzen dugula esan diteke: antziñako guda-kanta zaarretatik asi-ta egundañoko gazte berri-zaleen itz nourtu "zazpiki"-etaraño. Bidez-bide erritar bertso, maite-lelo, irri-kopla, jainkotiar, kantika ta gure liriko ikasi olerki garaienak agertzen dizkigularik... Artobero usairik gabe esan deza-kegu: Euskal-Olertia ugari ta goitar dala ta bes-

te edozein erritakoa bezin eder ta bikaiña, bakoitzaren neurriaren arabera.

A Onaindiak maite ditu iñon diran euskal olerkari guziak. Bikaintasunari ezik ugaritasunari leku eman dio. Leku oparo ta zabalegia, bear ba da. Bertan bein-beineko olerkari asko sartu ditu, bertsogintzan gaztearoko pekatari besterik izan ez diran batzuek. Guziak bildu ditu bere galtzarpe beroan gure praile mauka zabalak. Aukera ez da danen gogoko izango. Bañan ezin ukatu nekearen beldurrik gabe arduraz eta garisu lan izugarri bat burutu duna.

"Milla Euskal-olerki eder" liburu bikain onek, euskaldun sendi ta etxe guzietan bear luke toki berezi bat".

(Antonio Labayen "Ibalan", "Egan" 2-4, 1.954)

"Milla Euskal-olerki"ri buruz jakingarri da baita Andima Ibiñagabeitia'ren irizpidea: "Gure izkerak ere, askotxok uste izan ez arren, badu bere olerti arrobia Arrobi oparo ta sakon orren yabe egin nai lukenak ar beza A. Onaindiaren liburua eskuartean. Antxen arkituko dira mota guzietako olerkiak, bertsuak, poemak, izkera arroenen aitzinean bat ere lotsa gabe aurkeztu ditezken poesi zoragarriak.

Aspalditik zebiltzan bizpairu euskaltzale eun olerki onenak bildu bear zitutela-ta. Ordago ederra yo die Onaindiak euntxo biltzeko ere gai izan ez diran oriei.

Bakoitzak bere keru ta ao-goza ditugu. Onaindiak ere berea. Orregaitik ez da erreza esatea beti olerki onenak aukeratu ala ez. Olerkari banaka batzu ez ditu bear bezala nabarmendu ematen dizkigun aien olerkietan. Alare izenak eman dizkigu eta ez da gutxi... Olerkari berri-zale (modernista) zenbait ere eskaxegi



aukezten dizkigu. Ez dala oben larria esango du norbaitek... Nik berriz emen aipatzen diran olerkari (?) eta olerki asko, ez nitun aintzat artuko, ezta bilduman ezarriko... Dana dala lan izugarria eta bear bearrezkoa Aita Onaindiak egin diguna.

(A. Ibiñagabeitia.— Eusko Gogoa. 1.955, 1-2)

Jakin daigun baita Aita Santiren bibliografia argitaratu dauan Julen Urkiza karmeldarraren iritzia:

"Zelan klasifikatu geinkez Aita Onaindia eta bere lana?: Euskal langille ugaritsua da.

Nik ez dot ezagutzen Euskal Herriko historian, ez atzo eta ez gaur, euskeraz horrenbeste idatzi eta argitaratu dauanik... 18.000 orrialde inguru! Kantitatez ugaritsuena...

Euskera menperatasunez erabiltzeko gaitasuna edo ta erreztasuna izan da bere kalitaterik onenatariko bat. Bere LAMIÑAK liburuan erakusten deuskun lez, euskera ona erabiltzen dakiena da bera.

Nire ustez Aita Onaindia euskal kulturaren dibulgadorerik haundienetakoa dogu, gehienetan gazetarien estilo, espiritu ta arintasunez. Literato-garra, sena ta irudimena daukoz, sormena baino gehiago behar bada.

Dibuladore haundia izan da bai; han-horhemen ikusi ikasiak bere lumaren bidez euskal munduan zabaltzen ahalegindu dan gizona dogu.

Horregatik ez deutso inok eskatuko ez sakontasunik, ez teknika-sistemako seriotasun arduratsurik...

(Julen Urkiza. S. Onaindiaren euskal idazlanen Bibliografia. 1.989)



Gure egunetara urreratuta, EUSKERA-ZAINTZA'ren zenbaki onetako orrialdetan La-txaga'ren beretzazko lan bat dator. Santi aurretxoan beragaz euki eban alkar izketa baten ondoren egindako lana da.

"Aita Shantiren lanetatik onena bere olerkiak deritzaizkigu. Aita Shantiren olerkiak neurtzera goazela, danez gain sarrera bezala, asmo zabal batzuek esatera gatoz.

Lendabizi olerki alorrean, oso motz jantzia nagola aitortu bear eta Aita Santiaren lana oso aberatsa izaki. Geiegi neretzat".

Eta Aita Santi berberak zer esango ete leuke? Ziurretik, bere lanik atsegiñena, olerti saillean egin eban.

Olerkia zer dan eta abarrei buruzko idatzietan, argi ikusten eta igarten da bere griña, bere arra.

Berak esaten ekian lez, "apaltasuna egitan ibiltea dan ezker", ez daki bere olerkien edertasunik eta samurtasunik ukatzen.

OMENEZ

"Olerkigintza gogotsu samar ekin dautsot, neure bizitza zear"...

Zornotza'ko erriak eskeini eutsan omenaldian agertu zan bere "Olerki Guztien bilduma" liburuan diño: "Neuk uste baiño olerki geiago osotu nebala, 310tik gora dira guztiz, ikusi izan dut".

Bere esanetan Juan Mari Lekuonak egin eutsan sarrera "goralpen geiegiz bear ba da, baiña egiari berea eskiñiz" izan zan.

Eta geroago Lekuona'k diño: "Esan dezagun Olerti aldizkariak nortasun poetiko jakiña ematen diola euskal olerkigintzaren zerbitzari, biztanle eta defendatzaile izan dugunari. Aldizkariak behartu du poesiaz gogoetak egitera, zenbakien osagarri eta aberasgarri diren formak sortzera edo ta itzultzera, eta belaunaldi berriei beren lekua ukatu gabe, gerraurreko olerkarien babesle gertatzera, joera berriagoen aurrean lehenagokoaren testigantza eginez".

Eta orreri, Onaindiak berea sartu ta geitzen dautso: "Egi utsa, askok ez dakiena".

Geroago Lekuonak omenaldiko itzaldian "Ur egalean" izeneko bere olerki eredutzat irakurri ebala gogoratzen dauanean eta olerki orrek "negar anpuluhz begi asko bete zitula" gogoratzean, bere aldetik autortzen ausartzen da: "Antzeko poemak, guda oiñean be, ez nitun gitxi arildu".

Orrela berez, "ex abundantia cordis" autoritzen ekian beragan eukan olerkari gaitasun eta duintasun doaia.

Nire ustez, berberak gogoko eban besteen autotik entzun eta zindotzea, olerkari sena eta gaitasuna beragan eta berezko zitula.

Aita Santiren fitxa laburra

Jaiotza: Amoroto (Bizkaia), Atxuriarte base-rian, 1.909 urteko Epaillaren 24an.

Gurasoak: Migel Onaindia eta Jakintza Bazeta.

Amabi urtedun zala, Larrea'ra, berak esaten ekian lez, erdera ikastera, fraile deia igarten ba eban, ortan geratzekotan.

Fraile ikastaroak: Larrea, Markina, Gasteiz eta Bilbao'n.

1.934-an abadetzako ordena artu.

1.936-an, Euzkadi'ko gudan, gudarien gogozain.

Guda amaitu eta espetxetara, Sevilla'ko Carmona'tik azkatu arte.

Nai ta epai-zigor luzea euki, 1.949 urtean eldu jakon azkatasun ori, baiña Euskalerrian geratzeko debekuagaz.

Origaitik Cantabria'ko Hoz de Anero'ra bialdu eben, Karmeldarren ordenak bere arauak zorrotz bete al izateko aukeratuta daukan konbentura.

1.951 urtean etorri zan Euskalerrira, eta arrezkero emen ibili izan da, geientsuen Larrea'n, batzutan nagusi, bestetan tarteko.

II arterako azken urtetan, azken 37 urtetan, Eibar'ko nagusi lez egindako iru urte kendu ezker, Larrean euki izan eban bere egoitza.

Eriotza Gasteiz'en, karmeldarrak an dauken eritetxean, mutu, baiña atzamarrekin gora ba eioala-ta, 1.996'ko Otsaillaren 11'an azken amasa emonaz.


Eta 12'an, biaramonean, Larrako eleiza eta konbentu aurea eta klaustroa betien bete egozala bere anai-eleizgizon, abade, jarraitzaille eta ikasle ta irakurleen esker-omena.

Orra or R.I.P. eskatu daben urteen urtetako euskal idazle, kritikari, irakasle, kronikalari, argitaldari, sermolari, eta olerkari erraz, argi eta biotztunaren gain gaiñeko fitxa laburra, bere adiskide, lankide ta zirikalari izan giñanotako batek egiña.

Gerokoak geituko dabe euskeraren bizitzan euki dauan eragiña.

ZUBIKARAI tar Augustin

AITA SANTI ETA ABADE EUSKALDUNAK (Gudaldiko giroa)



- | | | | | |
|------------------------|---------------------|-------------------------|-------------------------|-----------------------|
| 1. José Sánchez | 15. Vicente Sáinz | 29. Mariano Ereño | 43. I. Arechabaleta | 57. F Sagarraga |
| 2. Antonio Partida | 16. Emilio Pardo | 30. Bernabé Acha | 44. Eugenio Larrañaga | 58. J. Antonio Loinaz |
| 3. J. José Aguirre | 17. Claudio Monreal | 31. S. Villanueva | 45. Estanislao Aguirre | 59. Santiago Onaindia |
| 4. Gregorio Fernández | 18. Germán Monreal | 32. F. Zorrozúa | 46. Victoriano Larragán | 60. Damián Celaya |
| 5. Luis Aguirre | 19. J. Pío Jáuregui | 33. Daniel Torrontegui | 47. S. Traspuesto | 61. José Domingo |
| 6. Vicente Batiz | 20. Santos Arana | 34. Rafael Urionagúena | 48. Manuel Ramos | 62. Fermín Goti |
| 7. Eugenio Legarra | 21. Carmelo Antomás | 35. Cándido Noguera | 49. E. equiel Guisaso/a | 63. Román Jáuregui |
| 8. Primitivo Urtaran | 22. Manuel Ortúzar | 36. José Sesma | 50. Nazario Saraso/a | 64. Enrique Arriaga |
| 9. Víctor Aldama | 23. Cástor Marañón | 37. F. Marcuerquiaga | 51. Juan Marquiegui | 65. Domingo Aguirre |
| 10. J. A. Dañobeitia | 24. Manuel Lladós | 38. Lino Aquesolo | 52. Luis Prieto | 66. Ugo |
| 11. Aquilino Ayerdi | 25. F. Barrenechea | 39. Gregorio Fernández | 53. Manuel Rosal | 67. Ugo |
| 12. J. Aldecoa-otalora | 26. Angel Aldama | 40. Honorio Ugoitia | 54. Angel Iturbe | 68. Ugo |
| 13. José López | 27. Angel Súnico | 41. Saturnino Ganchegui | 55. Federico Orbea | 69. Ugo |
| 14. Modesto Arana | 28. Julián Besteiro | 42. Juan Zabaleta | 56. J. M.ª Dañobeitia | |

Euskalerriko abadeen kondairan zer-ikusi aundia daukan argazki bat agertzen dogu orri onetan gaur.

Argazki orretan, beste abade askoren artean, aita Santi bera agertzen dalako eta zenbaki au oso-osoan berari eskintzen dautsagun ezkerro, gauza egokia da bere bizitzako aldi larri bat gogoratzen dauskun argazki au agertzea.

Neuretzat gogoangarriak diran beste izen batzuk be ikusten dodaz zerrenda orretan. Bizente Batiz, J. Aldekoa Otalora, Modesto Arana, Santos Arana, Lino Akesolo, I. Aretxabaleta, Eugenio Larrañaga, J.M.ª Dañobeitia, Fermín Goti, Roman Jauregi.

Jakiña da abade euskaldun batzuk eriotzea jasan ebela abade ta euskaldun ziralako. 16 ziran. Eta beste 500 erbesterratuak izan zira-la, eta Mateo Mujika Gotzaiñak bere "Imperativos de mi Conciencia" agirian diñoan lez, il ebezenan eta erbesterratu ebezenen artean iñor errudun izantekotan euren artean errurik aundiena izan ebanak mitiñen baten itz egitea izango eban.

Eta zergaitik orreabesteko gorrotoa? Euskaldunak ziralako, abadeak izan eta eleizako beste gotzain eta abade askon makurtu ziran lez, makurtu ez ziralako...

Gorroto ori ez zan erri-agintarien aldetik etorrrena beste barik izan. Ez Gure abadeak joaten ziran lekuetan gotzaiñak be euren aurka jarten ziran, Sevilla'ko Segura Kardinala izan ezin bestek. Mezea esateko baimena be ukatu jaken iñoz espetxean egozanai.

Eta erbesterratuta egon ziranak joan ziran tokian abade-lan ederra egin ebela entzun dogu, bai emen inguruan eta ez gitxiago Ameriketan.

Ainbseteko nekeak eta garratzasunak artu bear izan amen, batek be ez eban bere abadetzea itzi. Aspaldion, beste giro baten bizi gara baiña, ez da orrelan izan. Zio laburragoak naikoa izan dira artutako arduerea eta emondako berbea bertan bera izteko.

Sarritan esan da Eleizea ez dala izan, kondairaren joanean, Euskalerrriaren laguna. Eta, egia esan, gauza askotan ezin ukatu orrelan izan dala. Ori negarrez autortu bear dogun Eleizearen pekatua izan da, baiña guda-giro orretan abade asko izan daben jokabide argia ta adorettsua ez ete da naikoa pekatu ori garbitzeko? Baietz uste dot.

Argazki ori izan beite lekuko bat.



A

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendeneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan dirauelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Bahia leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geureaz onurak itzultzeko.

Betidanik.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK